




JAKIUNDE
ZIENTZIA, ARTE ETA LETREN AKADEMIA



DSS2016.EU

Erronkak Desafios

EGITARAUA

Sarrera

Erronkak/Desafíos 10 jardunaldiz osatutako egitasmoa da eta XXI. mendeko gizarteek dituzten erronken inguruko hitzaldi, mahai-inguru eta eztabaidagune izateko helburuarekin diseinatu du Jakiundek.

Egingo diren ekitaldietarako proposatu diren gaiak eta ikuspegiak, gure gizartearen etorkizunean garrantzia handia izango duten arloak jorratuko dituzte. Alderdi horien artean daude, besteak beste, gizarte-antolaketa, osasuna, ekonomia, lehiakortasuna, lurralde-antolaketa, kultura, zientziak eta arteak.

Proiektuaren helburuak

- ✓ Hainbat arloetan erronka garrantzitsu izan daitezkeen gaien katalogoa egitea.
- ✓ Gure gizartearen etorkizunerako erronkak azaltzea eta eztabaidatzea, zenbait elementuren arteko oreka bilatzeko; hala nola gizarte-zuzentasunaren eta ingurumen-jasangarritasunaren artekoa. Horretarako bertako eta nazioarteko adituen ikuspegia azalduz.
- ✓ Saioteko parte-hartzaileei haien bizimoduan aldaketak eragin ditzaketen tresnak eta argudioak eskaintzea, zenbait eztabaida eta postulatu talde-pentsamenduaren eta eguneroko erabaki-hartzearen parte izatera igaro daitezen.
- ✓ Herritarrak sentibilizatzea gure gizartearen eta, oro har, Europako gizartearen etorkizunerako talde-erronka gisa landu behar diren zenbait gairen inguruan.

Batzorde zientifikoa

Akademiako hamar kidez osatutako batzorde zientifikoa osatu du Jakiundek egitasmo honen dukia diseina dezan. Batzordeak desafio hori Akademiako gainerako kideei luzatu, eta askotariko gaiak, formatuak eta lurraldeak hartuta, egitaua osatu du, une honetan gizarteak bizi dituen zenbait desafio eta erronken inguruan jendartea sentibiliza dadin.

Honako hauek dira batzordekideak:

- ✓ Javier ECHEVERRÍA, Jakiundeko Mahaiko lehendakariordea eta batzordeko koordinatzailea
- ✓ Juan COLMENERO, jakitune
- ✓ Enrique ECHEBURÚA, jakitune
- ✓ M^a Carmen GALLASTEGUI, jakitune
- ✓ Víctor GÓMEZ PIN, jakitune
- ✓ Itziar LAKA, jakitune
- ✓ José Luis LARREA, jakitune
- ✓ José Félix MARTÍ MASSÓ, jakitune
- ✓ Enrique ZUAZUA, jakitune
- ✓ Jakeline BARKER, Jakiundeko eta batzordeko idazkaria

Proposamenak

Akademiako kideei *Erronkak/Desafios* proiektua ezagutarazi ondoren, proposamenak aurkezteko prozesuari ekin zitzaion. Akademikoeek proposatu zituzten aukerak aztertuta, azkenean, gure etor-kizunerako erronka diren interes orokorreko 10 gai ditu ardatz programak.

1. Garunaren zahartzea: erlojuaren kontrako lasterketa
2. Sehaskatik zaharren egoitzara: zer etorkizun du osasun mentalak Euskal Herrian?
3. Lege sozialak eta lege naturalak balantza erean: oreka hautsi al dugu?
4. Indarkeria gazte-jendean: biktimak ala borrheroak?
5. Material berrien iraultza
6. Lurralde-antolamendua eta globalizazioa: gure nortasunari eutsi al diezaiokegu?
7. Gizarte-kohesioa sendotzea: ba al dago gizartea ehuntzeko patroirik?
8. Zein dira XXI. mendeko ekonomia eta ingurumen erronkak?
9. Musika hezkuntzaren aldeko requiema: ZIUtik ateratzeko garaiz al gabiltza
10. Sormen-lantegiak: kultura eta berrikuntzarako eremu berriak

Erakunde laguntzaileak

2015eko irailaren 30^a den honetan, Jakiundeko kideen hainbat proposamenek honajo erakundeen babesa lortu dute:

- ✓ San Telmo Museoa
- ✓ Universidad de Deusto, campus de Bilbao y Donostia
- ✓ AMSA Bilbao
- ✓ Principal Antzokia, Donostia
- ✓ Musikene

Epe laburrean beste erakunde batzuk eskainiko diete babesa hainbat jardunaldiri.

Egutegia

Urtarrila	Otsaila	Martxoa
	<p>Otsailaren 2a: Envejecimiento cerebral: una carrera contrarreloj. <i>La conducta normal y patológica en la vejez</i> STM, Donostia</p> <p>Otsailaren 12a: <i>Violencia en los jóvenes: ¿víctimas o verdugos?</i> STM & Antzoki Zaharra, Donostia</p>	<p>Martxoaren 11a: <i>¿Cuáles son los desafíos económicos, sociales y medioambientales del siglo XXI?</i>, STM, Donostia</p>
Apirila	Maiatza	Ekaina
<p>Apirilaren 5a: Envejecimiento cerebral: una carrera contrarreloj. <i>Prevenir la enfermedad del Alzheimer: A quién y cómo</i> STM, Donostia</p> <p>Apirilaren 29a: <i>Réquiem por la enseñanza musical: ¿estamos a tiempo de sacarla de la UVI?</i> Musikene, Donostia</p>	<p>Maiatzaren 4a eta 5a: <i>La revolución de los nuevos materiales</i>, STM, Donostia & Chillida Lantokia, Legazpi</p> <p>Maiatzaren 24a: <i>Fábricas de creación: nuevos espacios de cultura e innovación</i>, STM, Donostia</p>	<p>Ekainaren 8a: Envejecimiento cerebral: una carrera contrarreloj. <i>El Alzheimer: Las tres etapas de una larga enfermedad</i>, STM, Donostia</p> <p>Ekainaren 10a: <i>Desde la cuna al asilo: ¿Cuál es el futuro de la salud mental en el País Vasco?</i> DU auditoriuma, Bilbo</p>
Uztaila	Abuztua	Iraila
		<p>Día 6: Envejecimiento cerebral: una carrera contrarreloj. <i>¿Podremos curar o prevenir la enfermedad de Parkinson en un futuro?</i> STM, Donostia</p> <p>Día 16: <i>Ordenamiento territorial y globalización: ¿podemos mantener nuestra identidad?</i> Itsas Museoa eta Punta Begoña galeriak, Bilbo</p>
Urria	Azaroa	Abendua
<p>Urriaren 8a: <i>Leyes sociales y leyes naturales en la balanza: ¿hemos roto el equilibrio?</i> Santa Ana eliza, Pasai Donibane</p> <p>Urriaren 25a eta 27a: <i>Fortalecer la cohesión social ¿existen patrones para tejer ciudadanía?</i> DU, Donostia</p>	<p>Azaroaren 8a: Envejecimiento cerebral: una carrera contrarreloj. <i>Genes y demencia</i> STM, Donostia</p>	<p>Abenduaren 13a: Envejecimiento cerebral: una carrera contrarreloj. <i>La prevención y el tratamiento de las enfermedades cerebro-vasculares</i> STM, Donostia</p>

6 hitzaldien zikloa

Garunaren zahartzea: erlojuaren kontrako lasterketa

Koordinatzailea: José Félix Martí Massó

Biztanleriaren zahartzea eta adintsuei eman beharreko arreta dira gure inguruko gizarteek duten erronka garrantzitsuenetariko bat. Bizi-itxaropena geroz eta handiagoa den honetan, geroz eta gehiago dira zaindu behar ditugun adinekoak ere. Zahartzaroko gaixotasun neurologikoek asko baldintzatzen dute gaixotasun horiek dituzten pertsonen, haien familien eta gizartearen bizi-kalitatea.

Alzheimerren gaixotasuna, Parkinsonen gaixotasuna eta garun-hodietako gaixotasunak oso ohikoak dira zahartzaroan eta, hori dela eta, ezinbestekoa da haien prebentziorako osasun arloko adituek egiten dituzten gomendioak ezagutzea, eta gaixotasun horiek dituzten pertsonenganako arreta hobetzea.

Formatua

6 hitzaldiko zikloa

Data

Otsailaren 2a, apirilaren 5a, ekainaren 8a, irailaren 6a, azaroaren 8a eta abenduaren 13a

Lekua

STM, San Telmo Museoa, Donostia

Publikoa

Orokorra

Lankidetzak

San Telmo Museoa

Egitaraua (hitzaldien ordua: 19:30)

Otsailaren 2a

Jokabide normala eta patologikoa zahartzaroan

JF. Martí Massó, neurologoa

Ordezkoa: Dr. Fermín Moreno, neurologoa

Apirilaren 5a

Alzheimerren gaixotasuna prebenitzea: nori eta nola

Pablo Martínez-Lage, neurologoa

Ordezkoa: Begoña Indakoetxea, neurologoa

AFAGIrekin lankidetzan.

Ekainaren 8a

Alzheimerre: gaixotasun luze baten hiru etapak

Rafael Blesa, neurologoa

Ordezkoa: Fermín Moreno, neurologoa

AFAGIrekin lankidetzan.

Irailaren 6an

Parkinsonen gaixotasuna sendatzerik edo prebenitzerik izango al dugu etorkizunean?

José Obeso, neurologoa

Ordezkoa: M^a Cruz Rodríguez Oroz, neurologoa

Parkinsonen gaixotasuna duten pazienteen elkartearekin lankidetzan.

Azaroaren 8a

Geneak eta dementzia

A. López de Munain, neurologoa

Ordezkoa: Fermín Moreno, neurologoa

Abenduaren 13a

Garuneko hodietako gaixotasunen prebentzioa eta tratamendua

Ana de Arce eta M.T Martínez Zabaleta, neurologoak

Ordezkoak: Patricia de la Riva eta Félix González

Hartutako garun-kalteak dituzten pazienteen elkartearekin lankidetzan

Jardunaldia

Indarkeria gazte-jendean: biktimak ala borreroak?

Koordinatzailea: Enrique Echeburúa

Indarkeriak kezka eragiten du egungo gizartean, gazteek eta nerabeek parte hartzen dutenean batez ere. Biktimei eragiten zaien kalteaz gainera, indarkeria-jokabideak izateak gazte horien etorkizuna honda lezake, arlo pertsonalean eta profesionalean. Indarkeria hainbat eratakoa izan daiteke gazteen artean: bikotekidearen kontrako indarkeria, sexu-indarkeria, eskolako indarkeria, arrazoi etnikoen, xenofoboaren nahiz erlijiosoen ondorioz gorrotoz egindako delituak etab.

Gizarteak erantzun egin behar dio egoera horri, ezin baitu poliziaren eta epaileen zigorbaliabideen esku utzi soilik. Familiak, eskolak eta komunikabideek aktiboki har dezakete eta hartu behar dute parte indarkeriazko jokabide horien prebentzioan. Jokabide horiek garaiz hauteman behar ditu, esku-hartzea eraginkorra izan dadin. Gaur egun, era koordinatuan arituta modu eraginkorrean esku har daiteke gazte-jendearen arteko indarkeriari aurre egiteko.

Formato

- ✓ Mintegia (goiz eta arratsalde)
- ✓ Publikoari zabaldutako hitzaldia (arratsaldez)

Data

Otsailaren 12a

Lekua

Mintegia: San Telmo Museoa
Dibulgazio hitzaldia: Antzoki Zaharra

Publikoa

Aditua (goiz eta arratsaldeko mintegia)
Publiko orokorra (hitzaldia eta emanaldia)

Lankidetzak

San Telmo Museoa eta Antzoki Zaharra

Egitaraua

MINTEGIA-STM

09:00etatik-11:00etara

Sexu-gehiegikeriak familia- eta eskola-ingurunean

Cristina Guerricaechevarría (Zutitu, Familia Indarkeriaren kontrako Zentroa), Blanca Vázquez-Mezquita (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, UAM)

11:30etatik-13:30etara

Jazarpena eta ziberjazarpena eskolan

Rosario Ortega-Ruiz (Kordobako Unibertsitatea) eta Maite Garaigordóbil (Euskal Herriko Unibertsita, UPV/EHU)

15:00etatik-17:00etara

Gazteetan suicidio arriskua detektatzea eta prebenitzea

Julio Guija (Sevillako Unibertsitatea), Mercedes Navío (Madrilgo Osasun Zerbitzua)

17:15etatik-19:15etara

Indarkeria gazteen bikote-harremanetan

Enrique Echeburúa (UPV/EHU)

Marina Muñoz (UAM)

DIBULGAZIO HITZALDIA

ANTZOKI ZAHARRA

19:30etatik-21:00etara

Gazte bortitzak: zer egin haiekin?

Luis González Cieza (Madrilgo Erkidegoko Adingabeen Agentzia).

21:00etan: **Bully** dokumentalaren emanaldia
(*The Bully Project*)

Jardunaldia

Zein dira XXI. Mendeko ekonomia eta ingurumen erronkak?

Coordinadora: M^a Carmen Gallastegui

Galdera hauetako batzuri erantzuna ematen saiatuko gara jardunaldi honetan: "Zein da gure seme-alaben etorkizuna", "Nola gainditu errenta-desberdintasunak", "Sartu behar al dugu etika gure sistema ekonomikoan?", "Hazkundearen alderdi demografikoak", "Nazioarteko ekonomian aldaketa historikorik gertatuko al da?", "Ingurumena eta hazkunde ekonomikoa", "Klima-aldaketa eta gizakien ongizatea", "Itsas mailaren gorakada eta horrek gure hondartzetan duen eragina", "Egokitzapena", "Tresna fiskalak, eta ingurumen-aktiboak babestea"...

Gisa honetako gaiak ikerketa-helburu dira oinarrizko zientzietan eta gizarte-zientzietan. Gai hauek garrantzitsuak dira gure gizartearen etorkizun ekonomikorako ez ezik, gizarte eta ingurumen etorkizunerako ere.

Formatoa

Bi hitzaldi eta bi mahai-inguru izango dituen goiz eta arratsdeko jardunaldia. 7 hizlari izango ditu.

Data

Martxoaren 11a

Lekua

STM (San Telmo Museoa), Donostia

Publikoa

Orokorra

Lankidetzak

STM

Egitaraua

Parte hartuko duten adituek erronka handi horiei buruz dituzten gogoetak, iritziak, pentsamenduak eta ikerketak guri helaraztea nahi dugu, litekeena baita gure seme-alaben eta biloben kezka ere izatea eta haien etorkizuna eta ongizatea baldintzatzea.

GOIZEZ

11:00etan: **Saioaren aurkezpena**

M^a Carmen Gallastegui, Jakiunde

11:15etatik 12:15etara:

XXI. mendeko erronka ekonomikoak

Emilio Ontiveros, Enpresako Ekonomiako katedraduna, Madrilgo Unibertsitate autonomoa, UAM

12:15etatik 12:30etara: *Kafe atsedenaldia*

12:30etatik 13:30etara:

XXI. mendeko ingurumen-erronkak

Teresa Rivera irakaslea, Nazioarteko politika klimatikoko aholkularia; Garapen Jasangarriko eta Nazioarteko Harremanetako Institutua

13:30etatik 13:45etara: **Ondorioak**

Alberto Ansuategi irakaslea

ARRATSALDEZ

16:30-17:30h: **Mahai-ingurua**

Hazkunde ekonomikoa eta ingurumena. Lehia ala osagarritasuna?

Antxon Olave, ekonomialaria, saiogilea.

Teresa Rivera, nazioarteko politika klimatikorako aholkularia.

Emilio Ontiveros, Enpresako Ekonomiako katedraduna.

Alberto Ansuategi: UPV/EHUko irakaslea

Ibon Galarraga, BC3 research.org

Moderatzailea: Marta Escapa. UPV/EHUko irakaslea

17:30etatik 17:45etara: **Ondorioak eta**

itxiera, M^a Carmen Gallastegui, Jakiunde

Jornada

Musika hezkuntzaren aldeko requiema: ZIUtik ateratzeko garaiz al gabilta?

Koordinatzailea: Teresa Catalán

Duela zenbait urtetik hona, arteen hezkuntza pixkanaka baztertzen joan da gure ikasketan, zuzenean ezabatu ez den arren. Musikak, hain zuzen, une zailak bizi ditu nola derrigorrezko hezkuntzan hala espezifikoean, ikasketan garrantzia kendu zaio eta.

Jardunaldi honek helburu du musika-hezkuntzaren inguruko etorkizun horrek dakartzen erronkak azaltzea, hausnartzea eta eztabaidatzea, eta XXI. mendeko gizarteek ezinbestean landu behar dituzten gaietan aldaketak eragin eta herritarrak sentsibilizatzeko litzaketen argudioak ematea.

Formatua

Hitzaldiak eta mahai-inguruak

Data

Apirilaren 29a

Lekua

Musikene, Donostia

Publikoa

Hezkuntzako profesionalak, musikariak, publiko orokorra

Lankidetzak

Musikene

Egitaraua

Gaiaren egoera. Espainiar estatuko eta Europako egoerari buruzko gogoeta.

11:30etatik 12:30etara:

Musika-hezkuntzaren gaur eguneko ereduak Espainian.

Luis Calderón Escobar. Getafeko Kontserbatorio Profesionaleko Irakaslea.

12:30etatik 13:00etara. *Kafe atsedenaldia*

13:00etatik 14:00etara:

Musika-hezkuntzaren ereduak Europako gainerako herrialdeetan.

Miren Zubeldia. UPV/EHUko doktorea, Sociedad para la Educación Musical (SEM) eta Asociación Española de la Psicología de la Música y la Interpretación Musical (AEPMIN) erakundeetako kidea.

17:00etatik 19:30etara. Mahai-ingurua

Musika-hezkuntzaren erronka etorkizunean:

Adituek aztertuko dute musika hezkuntza orokorrean, oinarriko hezkuntza espezifikoean, profesionalean eta goi-mailakoetan zein egoeratan dagoen. Ikusentzuleek parte hartzeko aukera izango dute.

- ✓ Miren Iñarga, MUSIKENeko zuzendari akademikoa (Donostia)
- ✓ Luis Ponce de León, UNEDeko doktorego baten jabe, Musika-hezkuntza irakaslea.
- ✓ Encarnación López de Arenosa, Pedagogia-katedraduna
- ✓ Marta Serna. Valladolideko Unibertsitateko doktorea; Irakaskuntza Ertaineko Musika irakaslea

Moderatzailea: Teresa Catalán, Jakiundeko kidea, konpositorea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioan Konposizioko eta Instrumentazioko katedraduna; egun Madrilgo Musikako Goi-mailako Errege Kontserbatorioan dihardu lanean.

Bi saio arratsaldez

Material berrien iraultza

Koordinatzaileak:

Carmen Mijangos eta Juan Colmenero

Euskal Herria aitzindaria izan da eta da material berrien eta ohiko materialen garapen teknologikoan. Hala nola, burdinaren, altzairuaren eta plastikoen garapenean. Gizarte txikia gara, zientziaren eta teknologiaren alorrean aurreratua, eta ezinbestean aurrera egin beharra daukagu, beste herrialdeek ere materialak ekoizteko ezagutzak eta prozesuak garatzen ari diren mundu globalizatu honetan lehian jarraitu ahal izateko.

Testuinguru horretan, gure gizartean material berriak garatzeak duen inpaktu ekonomikoa, soziala, zientifikoa eta teknologikoa ezagutarazi nahi dugu. Horretarako, materialek garapen ekonomikoan eta enpleguen sorreran zenbaterainoko eragina duten, eta zientzian, enpresa-munduan, eta gizarte-ongizatean duten inpaktua ere aztertuko dugu.

Formatua

Bi arratsalde jarraian:

- ✓ 1. arratsaldean: ikerketa teorikoak hitzaldiak eta mahai-ingurua (STM)
- ✓ 2. arratsaldean: materialei lotutako ikerketak, hitzaldiak eta mahai-ingurua (Chillida Lantokia, Legazpi)

Data

Maiatzaren 4a eta 5a

Publikoa

Orokorra, aditua, gazteak

Lankidetzak

STM

Hizlariak - Egitaraua

1. ARRATSALDEA, San Telmo Museoa
Zientzia eta material berriak

16:00etan.: **Aurkezpena**

Carmen Mijangos eta Juan Colmenero

16:30etatik 17:15etara:

Grafenoaren orainaldia eta etorkizuna

Francisco Guinea

17:15etatik 18:00etara: **Nanofotonika**

Javier Aizpurúa

18:00etan: *kafe atsedenaldia*

18:15etatik 19:00etara:

Makromolekula bakaneko nano-teknologia

Josexo Pomposo

19:00etan: Mahai-ingurua 4 hizlariekin

2. ARRATSALDEA, Chillida Lantokia
Material berriak eta jarduera ekonomikoa Euskal Autonomi Erkidegoan

16:00etan: *Donostiatik Legazpira bus irteera*

16:30etatik 17:15etara: **Materialak eta garraioaren etorkizuna**

Andrés Arizkorreta (CAF)

17:15etatik 18:00etara: **Material berriak eta ESS-Bilbao eraikuntza. Euskadiko ekarpena**

José Luís Martínez (ESS-Bilbao)

18:00etan: *Kafe atsedenaldia*

18:15etatik 19:00etara: **Materialak eta energiaren erronka**

David Mecerreyes/Teo Rojo

19:00etan: Mahai-ingurua: **Euskal industria prest al dago material berrien erronkarako?**

Jardunaldia

Sormen-lantegiak:

Kultura eta berrikuntzarako eremu berriak

Koordinatzailea: Javier Echeverría

Industrializazio garaian lantegiei buruzko kontzeptu berria sortu zen, serieko ekoizpen mekanikoa oinarri duen lantegiarena hain zuzen. Lantegi mota hori sormen kontzeptuarekiko antitetikoa dirudien arren, *sormen-lantegiak* adierazpena zentro kultural eta artistiko mota berriez aritzeko erabiltzen da Europan. Zentro berri horiek sormena eta parte-hartzea dute oinarri.

Jardunaldian Euskal Herriko egungo errealitatea aztertu eta kultura- eta sormen-lantegiei buruzko eztabaidari buruzko hausnarketa egingo dugu. Europan gaur egun dagoen ikuspegitik, lantegiaren kontzeptuaz hausnartuz, haren antropologia, artisau, eta arte jatorria oinarri hartuta (homo faber). Era berean, sormen-lantegiei buruzko eztabaida etorkizuneko lantegien esparruan kokatuko da, hala ikusten baitira Europan.

Formatua

Goiz eta arratsalde

Data

Maiatzaren 24a

Lekua

STM (San Telmo Museoa), Donostia

Publikoa

Orokorra eta aditua

Lankidetzak

STM

Egitaraua

GOIZEKO SAIOA

10:00etan.: **Jardunaldiaren aurkezpena**
Javier Echeverría (Jakiunde), Susana Soto (STM) eta Xabier Paya (DSS2016)

10:30etatik 12:30etara.: **Mahai-ingurua**
Sormen-lantegiak Euskal Herrian

Hizlariak: Xabier Gantzarain (Kalostra, Donostia); Astrako ordezkaria (Bilbo), Azalako ordezkaria (Vitoria-Gasteiz), Nacho Rodríguez (Arte Ederren Fakultateko dekanordea UPV/EHU) eta Marta Malo.

12:30etan: *Kafe atsedenaldia*

13:00etatik 14:00etara: **Kulturaren artisautza**
Joxean Muñoz, idazlea

ARRATSALDEKO SAIOA

16:00etatik 18:00etara.: **Mahai-ingurua**
Kultura eta sormen-industriei buruzko eztabaida

Hizlariak: Jesús Carrillo (UAM, Artearen Historiako irakaslea), Andrea Estankona (Sociología 2 saila, UPV/EHU), Santi Eraso (Madrid Espacio Cultural erakundeko zuzendaria) eta Arantza Lauzirika (Arte Ederren Fakultateko dekanoa, UPV/EHU).

18:00etatik 19:00etara.: *Fábricas de futuro*
Ander Gurrutxaga, catedrático de Sociología (EHU/UPV)

Jardunaldia

Sehaskatik zaharren egoitzara:

Zer etorkizun du osasun mentalak Euskal Herrian?

Koordinatzailea: José Guimón Ugartechea

Gizarte modernoetako bizimoduaren ondorioz, areagotu egiten dira haurretan asaldurik psikologikoak eta helduetan antsietatea eta estresa, gora egiten du zenbait drogaren gehiegizko erabilera, eta geroz eta gehiago dira psikosi kronikoen eta nortasun-nahasmenduen asaldurik larriak.

Hori dela eta, osasun mentala izango da Euskal Herriak datozen hamarkadetan izango duen erronka garrantzitsuenetariko bat. Izan ere, kontuan hartu behar da Euskal Herriak munduko bizi-itxaropenik handienetako duela, emakumeen kasuan batez ere. Horren ondorioz, asaldurik psikikoen prebalentzia ere handiagoa da beste herrialde batzuetan baino.

Data

Ekainaren 10a

Publikoa

Orokorra

Formatua

Goiz eta arratsaldeko jardunaldia, hitzaldi eta mahai inguruekin

Lekua

Deustuko Unibertsitateko auditoriuma, Bilbo

Lankidetzak

AMSA Bilbo

10:00etatik 10:30etara: **Aurkezpena**

Osasun mentalaren etorkizuna mundu globalizatu batean: Euskal Herriari buruzko gogoetak

José Guimón doktorea, Psikiatriako katedradun emeritua (UPV/EHU).

10:40etatik 1:10etara:

Haurren osasun mentalarentzako mehatxuak: hiperkinesiatik psikosira

Celso Arango doktorea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Haur-psikiatriako irakaslea, Gregorio Marañón Ospitaleko Haur-psikiatriako zerbitzuburua

11:20etatik 11:50etara:

Antsietate eta estres handiagoko gizarte baterantz al goaz?

Enrique Echeburua doktorea, UPV/EHUko Psikologiako katedraduna (Donsotiako campusa)

12:00etatik 12:30etara:

Lortuko al dugu drogak prebenitzeko drogarik?

Ana González-Pinto Arrillaga doktorea, UPV/EHUko Psikiatriako irakaslea (Vitoria-Gasteizko campusa) eta Hego Euskal Herriko Neuropsikiatriako Elkartearen lehendakaria.

12:40etatik 13:10etara

Psicosia edo nortasunaaren nahastea

Dr. Miguel Ángel González Torres, profesor de Psiquiatría UPV/EHU; Jefe del Servicio de Psiquiatría del Hospital de Basurto.

ARRATSALDEKO SAIOA

15:30etatik 16:00etara:

Talde-analisiko jarduerak terapeutiko eta didaktikoak Genevan eta Ruandan

Suzanne Ehrensperger doktorea, Genevako Unibertsitateko irakasle titularra eta *Anne-Lise Fredenrich doktorea*, Genevako Unibertsitateko irakaslea eta psikoterapeuta

16:10etatik 16:40etara:

Osasun mentaleko arreta emigranteentzat eta asilo-eskatzaileentzat

Joseba Achótegui doktorea, Bartzelonako Medikuntza Fakultateko Psikiatriako irakasle titularra

16:50etatik 17:20etara:

Laguntza psikiatrikoaren etorkizuna

Luis Rojas Marcos doktorea, New York Universityko Psikiatriako irakaslea, UPV/EHUko Honoris Causa Doktorea

17:30etatik 18:00etara: **Ondorioak**. José Guimón doktorea

Jornada

Lurralde antolamendua eta globalizazioa: gure nortasunari eutsi al diezaiokegu?

Koordinatzaileak:

Agustin Azkarate eta Ángel de la Fuente

Jasangarritasunean eta nortasunean oinarritzen den lurralde-antolamendu berri bat izateak dakarren erronka:

- ✓ XX. mendearen hasierako Euskadiko industrializazioaren oroimen kolektiboa berreskuratzea.
- ✓ Lurraldea eremuka banatzen duen antolamendu funtzionalistaren osagarri, nortasun-erreferentziak indartzea oinarri duen paisaia proposatzen da.
- ✓ Pertzepzioa eta oroimena, erabilgarritasun hutsaren kontrapuntu. Iraganeko irtenbideak ikastea, etorkizuneko diseinurako lorbide izan daitezen.
- ✓ Narrazioak eta agertokiak dituen euskarri sozialaren gainean eraikitako kudeaketa-ardatzak, ez soilik justifikazio teniko eta formalen gainean eraikiak.
- ✓ Helburua ez da iraganean paisaian utzi genituen aztarnei eustea, haien hiri dimentsioak sustatzea baizik, hots, oroimena, irudia eta baliabidea.

Lekua

- ✓ *Erakusketarako eta ekitaldi ludikoa:*

PUNTA BEGOÑAKO GALERIAK egokituko lirateke, hots, Abraz eta Arriluzeko kaiaz (Getxo) gozatzeko begiratoki paregabea, jendearentzat irekiko bailirateke azken berrogeita bi urteetan erabat utzita eta laurogei urtean baino gehiagoan erabili gabe egon ondoren.
<http://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/videos/detalle/3372236/video-la-recuperacion-galerias-punta-begona-getxo/>

- ✓ *Hitzaldi-zikloa : Itsas Museoa, Bilbo*

Data

Irailaren 16a

Publikoa

Aditua eta orokorra (adinekoak eta gazteak)

Formatua

Hiru motatako ekintzak proposatzen dira:

- ✓ **ERAKUSKETA:** Euskadiko industria-paisaiaren sorrerari eta haren aurrekariei, protagonistei, gizarte-errealitatei eta ondorioei buruzkoa
- ✓ **HITZALDI ZIKLOA:** Ibaietako eta itsasoko paisaiak izan duen eraldaketari eta gaur egun haiek nortasunean eta kide izatean oinarrituta antolatzeko aukerari buruzkoa.
- ✓ **EKITALDI LUDIKO DIDAKTIKOA** non haurrentzako eta jendeak parte hartzeko tailerrak, musika eta zinema izango baitira.

Hizlariak - Egitasmoa

Agustin Azkarate Garai-Olaun

Arkeologiako katedraduna UPV/EHUn, eta "Cultural Landscape and Heritage" UNESCO Katedraren zuzendaria.

Juan Manuel Madariaga Mota

Kimika analitikoko katedraduna UPV/EHUn (Euskadi)

Iñaki Antigüedad Auzmendi

Hidrogeologiako katedraduna UPV/EHUn (Euskadi)

Miren Onaindia Olalde

Ekologiako katedraduna UPV/EHUn (Euskadi), eta "Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza" UNESCO Katedraren zuzendaria

Joaquim Sabaté i Bel

Hirigintzako katedraduna UPCn (Katalunia)

Javier Taks Donas,

"Agua y Cultura de la UDELAR" UNESCO Katedraren zuzendaria (Uruguai)

Jardunaldia

Lege sozialak eta lege naturalak balantza berean: oreka hautsi al dugu?

Koordinatzailea: Víctor Gómez Pin

Hiriaren antolamendua sortzeko unean eskakizun ekologikoa beti hor izaten denez, lege sozialaren eta behar naturalaren arteko loturaren arazo filosofikoa guztioi dagokigun gaia da.

Batzuetan, pentsatzen da bigarrena eredu hartuta lantzen dela lehenengoa, hau da, gizarte-antolaketa lege naturala izango lukeela oinarri. Dena den, hori ezin da gauza jakintzat jo, eta, horregatik, jardunaldi honetan, gaiaren egoera zehazten saiatuko gara.

Data

Urriaren 8a

Publikoa

Adimenez jantzia den publiko orokorrari interesa lekioket saioa. Litekeena da aurkezten den erronkarekin lotura duten galdera zientifiko-filosofikoen arloan bereziki jakitun diren zenbait pertsona izatea bertan, Nazioarteko Ontologia Biltzarraren ostean egingo baita jardunaldia.

Formatua

Hitzaldiak eta ondoren eztabaida

Lekua

Iglesia Santa Ana, Pasai Donibane

Egitasmoa

- ✓ Lege sozialak ordena naturala hausten al du?
- ✓ Ordena sozialaren behar naturala eta oinarriak
- ✓ Lege sozialaren jatorria eta hizkuntzaren jatorria
- ✓ Lege soziala eta determinismo biologikoa
- ✓ Legea eta itsasoa

Hizlariak

- ✓ Francisco Ayala, biologoa (hasiera hitzaldia)
- ✓ Jordi Agustí, paleontólogoa
- ✓ Agustín Díaz Yanes, cinema- zuzendaria
- ✓ Javier Echeverría, filosofoa
- ✓ Rafael Moneo, arkitektoa (itxiera hitzaldia)

Ordezko itxiera hitzaldia:

LEGEA ETA ITSASOA

Itsasoko langileak liburuaren sarrera labur batean, Victor Hugo idazleak adierazi zuen lege sozialaz eta behar naturalaz gain, giza nahiak, tarteka, aurrez aurre izaten dituen harresiak direla dogmatismoa eta gizabanakoaren barru ezezaguna. Itsasoa behar naturalaren adierazpen paradigmaticoa izanik, ontzi bat itsasoan polisaren oldarra da, baina baita zorigaitzaren itzala ere ontziko eskifaia-kide bakoitzean, Pasai Donibaneri hain lotua zegoen poeta hark aipatzen zigun bezala.

Bi hitzaldi eta eztabaida

Gizarte kohesioa sendotzea: ba al dago gizarte-ehuntzeko patroirik?

Koordinatzailea: Cinta Guinot (DU)

Erronka hau garrantzitsua da gure gizartearentzat, harremanak ehuntzea ezinbestekoa baita; izan ere, pertsonaren (eta, beraz, hura bizi den komunitatearen) bilakaerarako oinarritzakoa da, baita gizarte-lanaren eta gizarte-zerbitzuen sistemaren nortasun-ezaugarria ere. Horrez gainera, harremanen bidez gizarte-erakitzen dugu, laguntza-sareak sendotzen dira, eta, azken batean, gizarte-kohesioa sortzen da.

Data

Urriaren 25a eta 27a

Publikoa

Esku-hartze sozialaren arloko akademikoak eta profesionalak, gai horrekin lotura duten diziplinetako unibertsitate-ikasleak (Gizarte-lana, Gizarte-hezkuntza, Psikologia, Soziologia...) eta gai horretan interesa duen publikoa oro har.

Formatua

Bi hitzaldi, egun desberdinetan. Hitzaldiak eta gero, publikoarekin elkarrizketa

Lekua

Loyola Centrum
Deustuko Unibertsitatea, Donostiako campusa

Lankidetzak

Jardunaldiko bi hitzaldiak, Deustuko Unibertsitateak Donostian antolatuko duen kongresu batean kokatuko dira, hasierako egunean bata eta kongresua amaitzeko bestea.

Hizlariak - Egitaraua

Urriaren 25ean

Harremanen arloko gizarte-lanaren ekarpena herritartasuna eraikitzean

Cristina de Robertis, Institut de Formation en Travail Social du VAR, Frantzia; gizarte-laguntzailea eta irakaslea, gizarte-lanaren metodologiari eta etikari buruzko liburu eta artikulua ugari idatzi ditu. *Politiques et interventions sociales* bildumako zuzendarikide da EHESP (*Ecole des Hautes Etudes en Santé Publique*) argitaletxean. Gizarte-laguntzaileen elkarte nazionalako (ANAS) *Revue Française de Service Social* aldizkariaren arduraduna da. Buenos Aireseko *LUMEN Humanitas* argitalpen-batzordeko kide da. Gizarte-laneko Trebakuntza-institutuko zuzendari izan zen Toulonen (Frantzia).

Urriaren 27an

Komunitate-esparruan herritartasuna ehuntzen

Teresa Matus. Txileko Unibertsitateko Gizarte Laneko zuzendaria.